

ARozTEGIA

Orduak eta orduak igarotzen zituen Domingok aroztegia, kinkilin eta kankalan. Negu partean ibiltzen zen urtean zehar hondatutako tresnak konpontzen. Kanpo aldean, elur eta euri, lanerako aukera handirik ez zen izaten eta barruan aritzen zen eman eta kolpe.

Arratsalde hartan egurrezko eskailera luzea konpondu nahian zebilen Domingo. Laugarren oin-maila puskatua zuen eta eskailera prest izan behar zuen hurrengo sagar bilketarako. Maite zuen eskailera hura Domingok. Airean dantza eginarazten ziona. Pixka bat hegan egiteko aukera ematen ziona. Igotzen zen gora-gora-gora-gora eta ia-ia sagarrondoan gainerik, han urrutian, inoiz ikusi gabeko lurrak ikusten zituen. Maite zuen eskailera hura Domingok, nahiz eta bere garaian han goitik, ia zeruaren paretik, lurrera erori eta sekulako ipurdikoa hartu zuen. Oraindik hor zuen arrastoa ezkerreko ipurmasailean.

Aroztegia zegoen arratsalde hartan Domingo, kinkilin eta kankalan, danba eta eman, danba eta kolpe. Bat-batean, sabaira begiratu eta sekulako armiarma-sarea ikusi zuen bazterrik bazter luze eta zabal, eta ziurtasun handirik gabe, baina bi aldiz pentsatu gabe, erratza hartu eta eskaileran gora egin zuen. Astindu zuen zipli eta astindu zuen zapla Domingok armiarma-sarea eta ezustean eskailera kinkilin-kankala hasi zitzaionean begiak itxi eta bere burua armiarma irudikatu zuen sarean salbu, kinkilin-kankalan lurrera erori aurretik. Aiaiaiai eta aiaiaiai oso minberatuta gelditu zitzaion oraingoan ere ipurdia, eskuineko ipurmasaila oraingoan.